

Getxo. Komunikazio estrategia



Komunikazioa
eta informazioa

Getxo. Komunikazio estrategia

Getxo Lagunkoia (2017-2018) proiektuaren diagnostiko faseko komunikazio estrategia. Bertan, ikusizko hizkuntzaren aldeko apustua egin da, eta hainbat metodologia konbinatu dira errealitatea ikusi eta interpretatzeko, eta marrazki eta hitzen bidez lankidetzan eta modu sinple eta argian produzitzeko.

Gizarte sare nabariak eta erraz identifikatzeko modukoak dituzten 1.000-2.000 pertsonako udalerrri txikietan ez bezala, dilema/erronka handia dakar 80.000 biztanleko udalerrri batean gaur egun EZ DAGOEN datu base ADIERAZGARRI bat lantzeko beharrak.

Alderdi hauei lotuta dago erroka: norengana jo (Vancouver irizpideak), nola egin (posta elektronikoz, idatziz, telefonoz, erreferentziazko kontaktuen bidez...), noiz egin (prestasuna) eta zertarako egin (jendaurreko aurkezpena, ikuspegi taldeak, Lagun Koffee-ren lehenespena...).

Partaidetza adierazgarri eta efiziente baterako betekizun horiek komunikazio estrategia baten lehenetsuna ekarri dute Getxon, hiria Lagunkoi izaten hasi zenetik. Estrategia horrek gai izan behar du galdera horiei aurre egiteko eta erantzuteko, eta komunikazio bikain eta egoki bat planteatu behar du, adinekoen beharrak eta gaitasunak errespetatuko dituen.

1. Erakunde sustatzaileak

Getxoko Udala (Bizkaia)

2. Erakunde mota

Publikoa

3. Xede taldea

Getxoko udalerriko 60 urtetik gorako pertsonak

4. Lurralde eremua

Getxo (Bizkaia)

5. Egoera

Amaituta

6. Etiketak

Komunikazioa, digitalizazioa, lagunkoitasuna

7. Helburuak

Helburu espezifiko hauek proposatu dira:

- 1. helburu espezifikoa: «hiriaren eraikuntza» zahartzearen ikuspegitik pentsatzea.
- 2. helburu espezifikoa: eraldaketa prozesuan askotariko sentsibilitateetako eragileak inplikatzea.
- 3. helburu espezifikoa: pertsona ardatz izango duen eta elkarre sarean sinergiak sortuko dituen komunikazio estrategia berritzaile bat garatzea.

8. Metodologia

Erabilitako euskarririk ohikoenak oinarri hartuta, KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA bat planifikatu da, 60 urtetik gorako pertsonen kolektibora egokitutako komunikazio etika edukian eta forman errespetatzen duena.

Fase bakoitzean, eta lan metodologiaren arabera, euskarri bakoitza egokitu da, baliabidearen optimizazioa eta efizientziarik handiena lortze aldera. Jarduerak eskuz eta ikusizko metodologia erabiliz egin dituzte.

Adibide gisa, 3 mugarri bereiz ditzakegu:

1. Aurkezpen publikoa udalerrian (2017-02-16).
2. Diagnostiko kualitatiboa 9 foku taldetan (2017ko martxoa).
3. Getxo Lagunkoffee. Lehenespena (2018-02-17).

1. Helburua: lagunkoitasun proiektua 200 pertsonaren aurrean aurkeztea.

Deialdirako erabilitako baliabideak:

- Parte hartzaileen datu basea.
- Prentsa oharra.
- Prentsaurrekoa.
- Gonbidapenak erakunde publikoentzat.
- Gonbidapenak parte hartzaileentzat (300 bidalketa).
- Graphic recording interaktiboa parte hartzaileekin.
- Cateringa.
- Ekitaldiari buruzko bideoa.
- Argazki erreportajea.
- Web edukiak igotzea.

- Sare sozialetan zabaltzea.
- Tokiko prentsa - Getxoberri.
- Eskerrak emateko komunikazio indibidualizatua.

2. Helburua: diagnostiko kualitatiboa Focus Group metodologiarekin egitea.

Planifikatutako 9 taldeak diseinatu, erakarri eta gauzatzea.

Dinamizazioa: 3 pertsona taldeko (10 pertsonako taldea, batez beste). Denbora: 120 minutu.

Deialdirako erabilitako baliabideak:

- Parte hartzaileen datu basea.
- Ekimenaren diseinua duten materialak.
- Komunikazio pertsonalizatuak parte hartzaileentzat.
- Saio guztien graphic recordinga.
- Argazki erreportajea.
- Web edukiak igotzea.
- Sare sozialetan zabaltzea.
- Tokiko prentsa - Getxoberri.
- Eskerrak emateko komunikazio indibidualizatua.

Gertatutakoa bistaratzeko estekak.

- Merchandisinga: kafe kizarak.
- Kafea eta gurinezko opilak.
- Aretoa egokitzea: loreak, pantaila.

3. Helburua: azterketa kualitatiboan eta kuantitatiboan detektatutako beharren lehenespena (507 parte hartzailei egindako inkesta). World Coffee metodologia. 8 lan mahai misto (soziala eta teknikoa). Errotazioa 20 minutuan behin hiru mahaitan. Dinamizatzaile/kontalari bat mahaiko.

Deialdirako erabilitako baliabideak:

- Prentsa oharra.
- Parte hartzaileen datu basea.
- Ekimenaren diseinua duten mahaiak eta materialak.
- Komunikazio pertsonalizatuak parte hartzaileentzat, lan materialekin.
- Komunikazio pertsonalizatuak udal arloetako arduradunentzat.
- Datuak eta irudiak tratatzeko baimenaren fitxa.
- Jardunaldiaren graphic recordinga.
- Argazki erreportajea.
- Bideoa.
- Web edukiak igotzea.
- Sare sozialetan zabaltzea.
- Tokiko prentsa - Getxoberri.
- Arloetako arduradunak mahaiko ostalari gisa prestatzeko saioak.
- Eskerrak emateko komunikazio indibidualizatua.

Gertatutakoa bistaratzeko estekak.

- Merchandisinga: haizemaileak eta euritakoak.
- Kafea eta gurinezko opilak.
- Aretoa egokitzea: loreak, pantaila eta abar.
- Saioaren ondorioen bidalketa pertsonalizatua.

9. Alderdi berritzaileak

Hizkuntza mota horri esker, garrantzitsuena nabarmentzeko eta lehenesteko aukera ematen duen bistaratze erakargarri, artistiko eta eskuragarri bat egin daiteke, «akta aspergarriak» egin beharrean.

Era berean, kolektiboaren aniztasuna integratzea eta parte hartzaile guztiek topaketa amaitzean edukien erregistroa berretsi ahal izatea ahalbidetzen du.

Parte hartzaileek jarduerak ikusizko metodologia baten bidez egitea eta beren eskuak erabili behar izatea lagungarria da taldeko giroa lasaitzeko, eta parte hartzaileen arteko harremanen sendotasuna errazten du.

Laburbilduz:

- Modu efizienteagoan komunikatzen du.
- Leku eta puntu komunitaria iristen da.
- Aldaketaren metaforak eskaintzen ditu, eta norabide berean mugitzen laguntzen die pertsonei.
- Edukien erregistroa eta asimilazioa sendotzen du.
- Baliabideak aurrezten ditu informazioaren galerari dagokionez.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Etorkizunari begira, eta beste espazio batzuk baliatuta, alderdi hori ikertzea aurreikusten da.

60 urtetik gorako biztanle guztiengana zabaldu daiteke, halaber, «komunikazioarekin eta informazioarekin» zerikusia duen 7. jarduketa arlotik abiatuta. 4 faseko OME prozesuak berak ebaluazioa aurreikusten du.

Getxo Lagunkoia espero du 2018. urtearen amaieran, I. Lagunkoitasun Planaren aurkezpenarekin batera, prozesuaren ebaluazio bat egitea. Ebaluazio horretan, bereziki txertatuko da Komunikazio Estrategia, funtsezkotzat hartzen baita lagunkoitasun prozesua iraunarazteko.